

Erref. kodea: LAF-219-191 [59]

Izenburua: Hainbatetik jasotako lanak:

Minaberri, Marijane 'Atalki': *Ez nakien*

Ez nakien ...

Ene aita zerurat igaitearen  
urteburukari

Lau taula , zortzi beso , bi begi nigar egiteko , joan eskoin ,  
joan ezker , bidea , beti , hilarrietarat doa .

--o--

Haize hegoaren hats gozoa farrandan kanpoan omen zabilan  
Eta nik, ez nakien oraino , larrazkeneko haize beroan , hotzak kalkari-  
kan egoiten ahal zela ...

--o--

Aro ederra omen zen . Iguzkiak , milikatuz , iretsia zuen  
lurra estaltzen zuen lanozko mantalina . Eta nik , ez nakien oraino ,  
zorigaitzean , egun argiz gaua izaiten ahal zela .

--o--

Langile onak bere denbora ontsa beterik jastatzen duen betiereko  
bakea , arpegian ; azken pausuan sarturik , goxotasun bat begitartean  
hedatua ; ezintasun lanbrots bat bisaiian pausatua ... Ez nakien bizi  
zelarik baino maitagarriago izaiten ahal zela zenduaren arpegia .

--o--

Gure izaitetik parte bat galdurikako min bizia ; jakitea gehiago  
sekula ez dugula ikusiko gure hatsaren , gure bihotzaren zati bat ;  
denak gostu gabe , ilun , hotz , etsai , aurkitzea ; gorputza harri  
peña bezain pizu , hotz , gogor , senditzea ; zer , bainan zer ari  
giren mundu huntan , lantzeta sista bat bezala beti gogoan ukaitea .  
Ez , ez nakien , orai artio , zer ~~xxx~~ zen sofrikarioaren lezea .

--o--

Haurride baten arpegian zenduaren eitea ; leku huts bat mahain  
buruan ; peñaka histu bat ximinia ixkinan ; maite zuen arrosa-ondoa  
bort'aintzinean ; hain maite zituen xoriñoen kantua zeruan ; harek  
landatu mertxika ondoa baratzean ; alki bat bere eskuz lantua, supaz-  
terrean ; kantu bat ardura ezpainetan zuena . Ez , ez nakien zendua  
beti gurekin bizi zela .

--o--

Deus ez dela akabatzen bainan egiazko bizia orduan haste delako  
esperantza ~~ahul~~ ; asmu bat , ez , ez dela egia bizi hau errokeria bat  
dela ; etsimendu beltzenaren zolan ezin itzalizko argi xirrinda bat ;  
ezin jasanezko pena pizuaren pean laguntza bat nunbaitik xortaka  
gutarat emana ; egun batez berriz elgarretaratuko girelako fidantzia .  
Ez , ez nakien fedearen laguntza hori zela .

Atalki



